

KONTZERTUAK SOINUENEAN

UDAZKENEKO KONTZERUA

2016ko urriaren 22an - 18:30etan Soinuenan - 5 euro

JON ELIZALDE & PIRENAEUS RENAISSANCE CONSORT

Berpizkundeko Euskal Musika



Iago Irixoa: *Perkusioa.*
Jordi Argelaga: *Txirimia eta txirulak.*
Noemi Argell: *Tiorba eta Laudea.*
Jon Elizalde: *Cornettoa, xirula eta Txurulak.*

Esne Beltzako eta Fermin Mugu-
ruzaren taldeko kidea da Jon Elizalde
Goñi. Jeneralean reggae, ska eta hip-
hop erritmoetan murgilduta bizi izan
da, baina antzinako musikaren maita-

lea ere bada, eta aspaldiko proiektu
bat burutzea lortu zuen kontzertu
honetan aukeztuko duen lanarekin:
XV eta XVI. mendeetako konposito-
reen lanak eskainzen dituen disko bat
argitaratzea. Jotzaileak Pirenaeus
Renaissance Consort taldeko kideak
dira; horietako asko euskaldunak,
batzuk kanpoan bizi direnak. Jon
Elizalde berak ere jo ditu hamar bat
tresna, besteak beste zeharkako flauta
errenazentista, sakabutxea eta kro-
mornoa. Nagusiki haizezko soinu-
tresnak entzuten dira lan honetan.

«Tipo xeble baten diskoa da.
Pertsona poliedrikoa naiz. Ska, dub
eta reggae doinuak jotzen ditut,
baina baratza egiten dut, Oñatin
musika-eskolak ematen ditut eta
Errenazimenduko musika ere gusta-
tzen zait», adierazi zuen Elizalde
diskoaren aurkezpen ekitaldian.

Bi urteko ikerketa eta ekoizpen
lanaren ondoren plazaratu zuen
'Berpizkundeko Euskal Musika: XV
eta XVI. mendeetako musikagileak'
diskoa, guztiz instrumentala eta aho-
tsik gabea. Elizako doinuak dira,
horiek baitira gorde diren bakarrak.
Besteak beste, Juan de Antxieta,
Gonzalo Martinez de Bizkargi eta
Joanes Garcia de Basurtoren doinuak
biltzen ditu diskoak.

Jon Elizalde Goñiren oso ekimen
pertsonala da proiektu hau eta 5Gora
diskoetxearen bidez plazaratu zuen.
Eresbil Musikaren Euskal Artxiboan
dauden partiturak erabili ziren, eta
diskoak berekin dakarren liburuxkan
Oñatin dagoen Gipuzkoako Protoko-
loen Artxibo Historikoan inguratu
zituzten irudiak erabili zituzten.

Eresbilgo Jon Bagues eta Oñatiko
artxiboko Ramon Martin Sukiaren
laguntza handia izan du Elizalde.

ETA GOIZEAN

EMANALDI DIDAKTIKOA

Berpizkundeko Euskal Musika

Lekua: SOINUENEA
Tornola kalea, 6
20180 Oiartzun
Eguna: 2016-10-22
Ordua: 11:30

Jon Elizalde musikariak haurrei
zuzenduta prestatu duen saio honetan
**XV. eta XVI. mendeko euskal
musikari buruz egin duen ikerketa**
oinarri hartuta garai hartako musika
nolakoa izan zitekeen azalduko du.

CARLES BELDA

Akordeoi Diatonikoa Katalunian

Carles Belda i Valls akordeoio diatonikoa jotzen duen musikari kataluniarra da. Bla Segat, Pomada eta Ensasadilla So Insistent izeneko taldeetan aritu da. Gaur egun Mesclat izeneko taldean, besteak beste, Francesc Ribera «Titot» (Brams) eta Joan Reig (Els pets) musikariekin aritzen da. Horretaz gain El Belda eta Conjunt Badabadoc taldeetako liderra da.

Musika klasikoa eta pianoa ikasten Josep Maria Pladevall eta Isabel

Izard irakasleekin hasi zen. Hogei urte zituela halabeharrez akordeoi diatoniko bat erosi zuen Sabadellgo Mercat Centraleko igandeetako azokan.

Akordeoia jotzen bere aldetik ikasi zuen, Francesc Marimon maisuaren ezagutzak eta Pere Pau eta Jordi Rouraren aholkuak jarraituz. Hasieran Sabadellgo aisialdirako La Roda taldearen kantutegiko piezak, Xesco Boixek moldatutako abesti

herrikoiak eta espiritualak, edo Jaume Arnellaren kantutegiko abestiak jotzen zituen.

Akordeoi diatonikoa eta trikitixa izaera herrikoiko taldeetan jotzen ditu. Rumba du musika estilo gogoena, Pomada taldearen lanetan bezala, akordeoi diatonikoarekin jotzeko egokitu duen estiloa. Carles Beldaren kontzertuetan askotan egiten dira 'garrotin'-ak eta kantu inprobisatuzko bestelako aldaerak.



AFARIA KONTZERTUAREN ONDOREN

Afaria kontzertua emango den areto berean izango da, Ergoingo Auzokalte elkartearen. Bertan musikariekin egon, jan, kantatu, jo eta dantzatzeko aukera izango da.

Afaltzeko lekua gordetzeko Soinuenera deitu eta izena ematea komeni da.

Afaria + Kontzertua: 20 euro



kontzertu honen laguntzaileak:

AUZOKALTE


ERGOINGO AUZO
ELKARTEA